



PLENTZIAKO URI UDALA	
Ayuntamiento de la Villa de Plentzia	
SARRERA Entrada	
EGUNA Fecha	06 FEB. 2019
IRTEERA Salida	133

Herritar estimatua,

Iragan urriaren 10ean zuen auzoan eginiko bileraren ostean, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu etortzeagatik eta parte hartzeagatik, zuen ekarpenak oso baliotsuak direlako Udal honek hobekuntzak egin ditzan planteatzen dizkiguzuen gaitan.

Gutun honen bidez laburpen bat egingo dizuegu, jakin dezazuen azken hilabeteetan zein tramite egin ditugun bilera hartan helarazi zenizkiguten ekarpenen eta guk laburbildu genizkizuen gaien inguruan:

-TXIPIO AUZOKO ERREPIDEKO (BI-2122) BIDEGURUTZEA HOBETZEA (GELTOKI INGURUAREN BERRURBANIZAZIOA)



Bilera hartan aipatu bezala, 2015eko uztailetik etengabe gaude harremanetan Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiarekin, proiektu hau elkarrekin garatzeko. Foru Aldundiak eta Udalak 2018ko azaroaren 27an eginiko azken bileran entregatu zitzaigun lanak egiteko proiektua. Txosten horren helburua da definitzea eta baloratzea zein lan egin


behar diren metro geltokiaren eta Txipio auzorako sarbide den kalearen arteko gunea hobetzeko (Geltoki Kalea eta Txipio Bidearen tarte bat). Horrela, segurtasuna hobetuko da, lurrazaleko aparkaleku berri bat eraikiko da eta autobus eta taxi geltokiak jarriko dira. Udalak komun publiko bat instalatuko du Metro Bilbao geltokiaren inguruan eta bizikletentzako aparkalekuak jarriko ditu.



Hemendik gutxira, eta behin proiektua sakon aztertu ondoren, Udalak txosten hori bidaliko die inguru horretan inplikaturako administrazio guztiei (URA – Uraren Euskal Agentziari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Kosten Demarkazioari, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Ingurumen Sailei, Bizkaiko Garraio Partzuergoari...), egoki baderitzote, alegazioak aurkez ditzaten.

Alegazio horien arabera, baliteke proiektua aldatu behar izatea edo aurrera jarraitzea.

-HORNIKUNTZA-SAREA BIRJARTZEKO ETA INGURUMENA HOBETZEKO PROIEKTUA PLENTZIako TXIPIO BIDEAN (Errugbi zelaiko bidegurutzetik Musurieta-Barrikaraino)



Plentziako Udalak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (CABB) lankidetzaren hitzarmen bat dute hiribilduko ur edangarriaren bigarren mailako sarearen mantentze- eta birjartze-lanak egiteko, eta hitzarmen horren barruan jasotzen da Txipio Bideko instalazioaren hobekuntza. Horregatik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kale hori berrurbanizatzeko proiektu bat

idatzi du eta URA–Uraren Euskal Agentziari eta Kosten Demarkazioari bidali die, ikus- onetsia eman diezaioten (URAREN erantzunaren zain gaude).

Kontuan harturik proiektu horren kostu ekonomikoa (558.677,64 €), 2018ko maiatzaren 31ko eta uztailaren 26ko Osoko Bilkuretara eraman zen gaia, lanak finantzatzeko behar den kreditua onartzeko. EAJ eta Plentziako Independenteen taldeek hala proposaturik, gaia mahai gainean utzita dago eta ez da onartu lan hauetarako partidarik. Beraz, ez dago lanekin hasteko zuzkidura ekonomikorik eta horregatik dago geldirik proiektua.



Auzoko bileran aipatu bezala, Udala lanean ari da kale horretara gas naturalaren hargune bat ekartzeko. Zentzu horretan, duela gutxi elkartu gara enpresa hornitzailearekin, zeinak interesa agertu baitu hornikuntza-sarea gune horretaraino zabaltzeko, baina behin betiko baieztapenaren zain gaude oraindik.

-URA AGENTZIAKO TEKNIKARIEN BISITA TXIPIO BIDEKO INGURURA

Itxas Mendiko (Etxe Berde deiturikoak) bizilagun batek jakinarazi digunez, Musaurieta errekaen ustezko desbideratzeak eta Barrikako *Cantarranas* inguruan egin ziren lanek hainbat arazo sortu dituzte auzo horretan. Horregatik, birritan joan gara gune horretara URako teknikariek (2016ko uztailaren 12an eta 2019ko urtarrilaren 25ean). Azken bisitaren ondoren esan ziguten itzuliko direla eguraldia hobetzen denean, errekaen desbideratzea aztertzeko eta padura-itsasadarreko isurbideetan tapoirik ba ote dagoen begiratzeko.

-OINEZKOENTZAKO PASABIDEAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Udala diagnostiko bat egiten ari da oinezkoentzako pasabidearen egiturari eta mantenimendu-lanei buruz, ez baita horrelakorik egin duela ia 27 urte eraiki zenetik. Horregatik, eta zubiaren egoera ezagutzeko, dokumentu hori idatz dezan eskatu zaio zubia eraiki zuen enpresari, CFC, S.L.ri (Javier Manterola Armisen jauna delarik proiektuaren buru), hartu beharreko neurriak hartzeko.

Plentzian, 2019ko otsailaren 6an

Alkatea



David Crestelo Dominguez